



VII. ERANSKINA– EUROPAKO BATZORDEARI, IRUZURRAREN AURKA
BORROKATZEKO EUROPAKO BULEGOARI, KONTUEN AUZITEGIARI ETA
EUROPAKO FISKALTZARI FINANTZA ERREGELAMENDUAREN 129.1
ARTIKULUAK AITORTZEN DIZKIEN ESKUBIDEAK EGIKARITZEKO BERARIAZKO
BAIMENA EMATEA

_____, jaunak/andreak (NAN zk.:
_____), _____ erakundeko
kontseilari delegatu/gerente gisa (IFZ-zk.: _____ eta egoitza-

fiskala: _____), zeina C24.I2.P4 proiektuan
definitutako helburuak lortzeko PRTRtik eratorritako baliabideen bidez finantzatutako
laguntzen onuraduna den, adierazten du ezagutzen duela araudi aplikagarria, bereziki
Suspertze eta Erresilientzia mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta
Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.
artikuluko apartatu hauek:

2. apartatuko e) letra: «Batzordeari, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari,
Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza
Erregelamenduaren 129. artikulua 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak
egikaritzeko baimena ematea; eta Suspertze eta Erresilientzia Planean sartutako
erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen
azken hartzaile guztiak behartzea, edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako
persona edo erakunde guztiak behartzea; eta berariaz baimena ematea Batzordeari,
Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala
dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1.
apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko eta antzeko betebeharrak
ezartzeko funtsen azken hartzaile guztiei».

Bat etorri arestian azaldutako esparru juridiko horrekin, beren-beregi ematen die
baimena goian aipatutako organo eta erakundeei eskubide horiek egikaritzeko.

_____(e)n, sinadura elektronikoaren egunean,